

1.UNITATE DIDAKTIKOA: Escape hall fisikoa			
INPLIKATUTAKO ARLOAK: Natura zientziak eta Balio zibiko eta etikoak.			
GAIA: Ingurumenaren zaintza	MAILA: DBH1	SAIO KOPURUA: 2 -Lehenengoa Txingudiko Zerbitzuetako hezitzailearen eskutik. -Bigarrena norberak aldatu ditzakeen ohiturak zerrendatu eta pare bat aldatzeko konpromezua hartu eta horren jarraipena eraman txosten bat eginez.	
IKAS-EGOERAREN MARKOA			
Testuingurua: Bidasoa Beherean birziklatze tasa % 55 batean kokatzen da eta Europako helburua 2030erako % 60 batera igotzea da. Hurrengo bost urteetan zer hobetu bada. Era berean, Irun eta Hondarribia herrietako biztanle bakoitzaren etxeetako eguneko ur kontsumoa 112 litrokoa da. Horretaz gain, moda azkarrek eta gizartean ohitura bilakatzen ari diren jarrerakitsu-itsuan kontsumitzera bultzatzen gaituzte. Egunerokotasunean egiten ditugun ekintzek ondorioak dituzte. Datu horiek herritarrok osatzen ditugu, eta hortaz, gure esku dago horiek hobetzea.			
Abiapuntua: Ditugun baliabideak mugatuak dira eta aldaketa klimatikoak dakartzan aldaketek eta biztanleriaren igoera esponenziala ikusirik, baliabide hauek hare eta urriagoak bilakatzen ari dira.		Azken ekoizpena: Baliabide horien erabilera arrazional eta efiziente bat egitea funtsezkoa da eta horretarako kontzientzia beharrezkoa. Norbere ekintzak aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu eta betetzea.	
PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIOA			
Txingudiko Zerbitzuak beste hainbat lanen artean hondakinen kudeaketaz eta ur horniduraz arduratzen dira. Datuek zer hobetu badute, eta ura, hondakinak eta kontsumoa biltzen dituen jolas honetan bakoitzak egiten dituen ekintzak aztertzen dira, hor baitago aldaketarako gakoa.			
Funtsezko konpetentziak: EK			
Deskriptore operatiboak	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko jakintzak
EK1. Beharrak eta aukerak aztertzen ditu, eta erronkei zentzu kritikoarekin aurre egiten die, iraunkortasunaren balantzea eginez, ingurunean izan dezaketen eragina baloratuz, ideia eta irtenbide berritzaileak, etikoak eta iraunkorrak aurkezteko.	Balio zibiko eta etikoak 3.Giza jardueren elkarrekintzen izaera ulertzea, arazo ekosozial garrantzitsuak identifikatuz eta aztertuz, bizimodu iraunkorrak lortzeko etikoki konprometitutako jarrerak sustatzeko. Natur zientziak 6.Ekintza batzuek ingurumenean dituzten ondorioak aztertzea, zientzien funtsetan oinarrituz, garapen iraunkorarekin bateragarriak diren eta planetaren osasun indibiduala eta kolektiboa mantentzea eta hobetzea ahalbidetzen duten ohitura arduratsuak sustatzeko.	3.1. Planetaren mugak eta gure bizitzaren eta ingurunearen arteko interkonexio harremanak ulertzea, lurreko bizitzari eragiten dioten arazo ekosozial larrienen kausak eta ondorioak aztertuz. 3.2. Garapen iraunkorra lortzeko etikoki konprometitutako bizimoduak sustatzea. 6.3. Ingurune hurbilean ohitura jasangarriak proposatzea eta hartzea, norberaren eta besteen jarduerak aztertuz eta norberaren arrazoibideetan, eskuratutako ezagutzetan eta eskura dagoen informazioan oinarrituz.	Balio zibiko eta etikoak C. Iraunkortasuna eta ingurumen etika -Bizi-ohitura iraunkorrak. -Ingurumen kontzientzia. -Ardura ekosozial indibidual eta kolektiboa. Natur zientziak C.Ekologia eta jasangarritasuna -Ohitura jasangarrien garrantzia.
HELBURU DIDAKTIKOA			
1. 2. (...)			
METODOLOGIA			

Printzipioak	Antolakuntza
	Baliabideak
EBALUAZIOA	
Ebaluazio prozesua:	
Ebaluazio adierazleak: 1. 2. (...)	
Ebaluazio modalitatea:	Ebaluazio tresnak: